

12 Setiembre 1874, 500 ejs. (1)

ERARIYAREN BERTUTEAK

1/ Erari maitagarriya,
zugatik daukat jarriya
argumentu bat larriya;
indarra zera gorputzarentzat,
kentzen dezu egarriya,
gauza estimagarriya,
bañan zauzkat igarriya,
zera engañagarriya.

2/ Nik zu nor ziñan ez nekin
eta gogoz nizun ekin,
fiyaturikan zurekin;
istante batez egin zenduben
nai zenubena nerekin,
biyok giñan alkarrekin,
kontubak ziran gurekin,
ondo det nor zeran jakin.

(1) Eskuz kanta-paperari erantsia.

3/ Batek lezake espero,
ondotxo edan ezkerero,
jarriko dubela ero;
lotsagarri ta lotsarik gabe
ibilliko dala gero,
korajetsu eta bero,
non nai egiñaz aldero,
modu txarrean entero.

4/ Indarra erariyak du
ezin litekena neurtu,
gizona lezake aurtu;
ustez tamañan bein eran eta
ninduben oso mozkortu,
itzegin ezin ta gortu,
bista zitzaidan laburtu,
gañera nuben min artu (1).

5/ Gustora eran banuben
ondoren pagatu nuben,
deskalabratu ninduben;
nere ondolik pasa zan batek
galdetu ziran zer nuben,
ia miñen bat al nuben,
nondikan sentitzen nuben,
planta onen bat jo nuben.

(1) Eskuz kanta-paperari erantsia: "tratu on
bat nuben artu".

- 6/ Nere moduban beste bi,
 eranik sobra erari,
 bueltaka ziran erori;
 altxa nai eta ezin altxanak
 loitan zebiltzan igari,
 jarri ziran guri guri,
 kuasik etziran ageri,
 bildu baitzuten ugari.
- 7/ Nai ez dubenak orditu
 eta ondoren eritu,
 kontuz eraten aritu;
 erari klase guziyak here
 espirituak baditu,
 gure txintxurrak nai ditu
 gustoz eraten baititu,
 naiz gero berak zatitu.
- 8/ Mudatzen gaitu eranak
 mundu onetan geranak,
 pruebak daduzka emanak;
 jeniyo txarrak ondutzen ditu
 bai ere gaiztotu onak,
 aztu orduban esanak
 eta egindako lanak,
 naiz gero damutu danak.

Donostiyan: —Juan Osesen, *moldiztegiy-n.*
Ramon Artola-k ipiñiak Donostian 1864'ga-
rren urtian. (1)

(1) Eskuz kanta-paperari erantsia.
 Ikusi: "Colección de José Manterola. pág. 9".

Auek dira Ramon Artolaren bertsorik fa-
matuenak. Ameka aldiz argitaratu izan dira,
bañan Manterola'k, bere "Cancionero Vasco"
deritzaion liburuan, etzuan nai izan seigarre-
na atera, eskara iritzita nunbait, eta aren fal-
tan gelditu ziran geroko argitaraldi asko. Orra
argitaraldi batzuen tokiak:

José Manterola: "Cancionero Vasco, Prime-
 ra Serie".

"Bertsolaria", Imp. Macazaga, Rentería,
 1933.

"Euskalerriko kanta zarrak", Imp. Maca-
 zaga, Rentería.

"Gure kanta zar jatorrenak".

"Euskal kantak", Donosti, 1959.

"Gure kantak", Bilbao, 1960.

"La Constancia". (Daukadan periodikuaren
 puskak ez du egunik markatzen.)

"Baserritarra", 1909.

Kanta-papera: Col. Lacombe, Bib. Nat. Pa-
 ris.

Kanta-papera: Imp. Macazaga, Rentería.
 (Getari'ko Garro baserritik eskuratua.)
 Gerra aurretikako egutegi baten.

Erriaren eskuz edo makinaz idatzitako pa-
 peretan:

Tolosako Fakundo Adurriaga "Besamotza"
 zanaren mordoetan.

Ernaniko Ramon Apaolaza zanaren sortan.

*Irunen jaýo ta Plazentzin bizi izandako
Andres Ecenarro "Urzelai" zanaren sor-
tan.*

*Donostiko Juan Iturralde "Juanito Kojua"
-ren sortan.*

*Gernikako Julio Bareño jaunak norbaiten
aotik jaso ta bialdua.*

Nungoa danik jarri gabeko paper baten.

*Oraindik ere izango dira geyo, bañan nai-
kou izango da gure errian ondo ezagunak di-
rala adierazteko.*

*Askotan inprentatua izan dan ezkerro, ez
da arkitzen aldaketa aundirik.*